



**RS!**  
**Realsocialismo!**

Grupo de trabajo de aficionados  
y accionistas de la Real

Realeko zaletu eta  
akziodunen lantaldea

# Estadiotik futbol zelaira

## Zergatik Anoeta berritu

# Aurkibidea

<b>Zergatik dokumentu hau</b>	<b>3. orr.</b>
<b>1. Kirol-arrazoiak</b>	<b>4. orr.</b>
<b>2. Gizarte-arrazoiak</b>	<b>6. orr.</b>
<b>3. Arrazoi komunitarioak</b>	<b>13. orr.</b>
<b>I. Eranskina: Kontzeptu mapa</b>	<b>17. orr.</b>

# Zergatik dokumentu hau

Hainbat alditan hitz egin da Anoeta bere erabilera nagusira, goi mailako futbol txapelketara, egokitzea sostengatzen duten arrazoien inguruan, baina orain arte argudio horiek inongo momentutan ez dira dokumentu publiko batean bildu. Horren ondorioz, bada ondasun publiko batekiko norbanako gutxi batzuek duten apeta dela uste duenik. Futbolzale porrokatuek erabiltzeko pentsatua, dokumentu hau eraberritzearen beharra argi ikusten ez duten zaletu edo futbola gorrotatu baina Donostia, Gipuzkoa eta Euskadiren aurrerapen izpiritua elkarbanatzen dutenei bideratua dago.

Goi-mailako futbolak azken hamarkada eta erdian epe laburrera geratzeko itxurarik ez duen eraldaketa bizi izan du. Horren adibide argiena futbol zelaiak, taldeen etxebizitzek, jasandako aldaketa izan da: harmaila, aldagela eta prentsa-tribunaz inguraturiko belarrezko errektangulu izatetik diru-iturri izatera pasa dira. Are gehiago, UEFAren arabera klubaren diru-iturrien herena izan beharko luke zelaiak. Egungo Anoetak ez du Realak %20tik pasatzea ahalbidetzen, eta, horren ondorioz, Ogasun foralean bere eragina askoz ere narriagoa da BEZa bezalako alorretan. Eta, gainera, enpresen fakturazioa txikiagoa izateak zerga-bilketa urriagoa dakar.

Egoera honetan murgilduta dauden eragileak ugariak dira eta desiragarria lizateke ikerketaren bat argitaratzea. Izan ere, oso argi dugu berauek bai Realak eta bai Donostia, Gipuzkoa eta Euskadirentzat aldaketa egokia dela sostengatuko luketela. Are gehiago dokumentu honetxek zirriborratzen dituen eraginak ikusita.

# 1. Kirol arrazoiak

## 1.1. Atletismoko pistak European Europa, rara avis

Europako bost liga nagusietan 98 taldetatik soilik 13k dute atletismoko pista euren instalazioetan: bat espainiarran, beste bat frantsesan, bi alemaniarran, bederatzi italiarran eta bakar bat erez ingelesan. Zergatik hain gutxi?

- Atletismo pistak dituztenen artean, Udinese bezalako taldeak eraberritzen ari dira, Roma bezalako beste batzuk zelai berria eraikitzeko lanetan dabilta eta azken hamarkadetan, Olympique de Marsella, Olympique de Lyon edo UD Las Palmas bezalako taldeen zelaiak obrak egin zituzte atletismo pistak kendu eta Manchester Cityren bezalako instalazioak -egungo zelaia 2002an Commonwealth-eko jokoen egoitza izan zen - funtzionalizatzeko.
- Anoeta, 23 urte hauetan estadio bat izateko inbertsio publikoa bere erabilerengatik justifikatua gelditu ote den baloratu gabe, kasu ezohikoagoa da. Atletismo pistak egoteari hondoetan tribunan baino askoz edukiera gutxiago izatea gehitu behar diogu. Bi zelai bakarrik dira gainontzeko 97en artean ezaugarri hau dutenak: Darmstadt talde alemaniarraren Stadion am Böllenfalltor, 16.500 lagunentzako edukierarekin, eta 1965ean eraikitako Empoliren Carlo Castellani, 16.800 lagunentzako edukiera eta hondo aurrefabrikatuak dituena.
- Futbol zelaientzako gomendio eta behar teknikoak (2011) zehaztu zituzten FIFako adituen arabera “baliteke Joko Olinpiko batzuk bertan egiteko asmoa eta aurrekontu altuak dituzten munduko hiri handienek futbolak eta atletismoak dituzten beharrak asetzeko gaitasuna izatea. Kasu gehienetan, ordea, zelai moderno baten inguruko atletismoko pista saihestea hobe da”.
- Zentzu honetan, adituek diotenez “ez dago zalantzarik. Zelai funtzional bat ezingo da inoiz alderatu, ikuslearen dibertsioaren

aldetik, benetako futbol zelai batekin, espreski munduko kirol ezagunenerako eraiki dena. Diru iturri altuak sortzen dituzten atletismoko ekitaldi gutxi daude eta estadio multifuntzional batek ezingo ditu horrelakoak hamar edo hogeituro behin edo bitan baino gehiagotan antolatu”.

## 1.2. Kirol-errendimendua

Harmailen gerturatzeak denboraldi amaieran puntzu batzuk gehiago izatea dakar, bai bertako taldeak jasotzen duen bermeagatik bai kanpoko taldeak zein epaileak jasaten duten presioagatik.

The Influence of Crowd Noise upon Judging Decisions in Muay Thai (2012). Tony Myers, Alan Nevill eta Yahya Al-Nakeeb-ek (Newman University College eta University of Wolverhampton, Erresuma Batuan), egindako ikerketaren arabera "Pettersson-Lidbom eta Priks-ek ikusle gabe jolastutako 24 partida alderatu zituzten zelaiak ia beteta zeuden beste partida batzuekin. Arbitro berak hartutako erabakiak konparatzeko gai izan ziren, tartean erabaki klabeak (faltak, txartel hori eta gorriak). Emaitzak argi utzi zuten epaile italiarrek modu zorrotzagoan epaitzen zituztela kanpokoak eta bertakoak modu bigunagoan ikusleen aurrean jolasten ziren partidetan. Egileek honakoa epaileek presiopean hartutako erabakietan eragina jasaten dutela iradoki zuten egileek”.

## 2. Gizarte-arrazoiak

### 2.1. Esperientziaren kalitatea

Egungo bi arazo.

#### 2.1.1. Ikus-eremuaren kalitatea

- Zelaia eta harmailetako lehen lerroaren arteko distantzia: FIFAk hondoetan gutxienez 10 metro eta hegaletan 8,5 aholkatzen ditu. Hala ere 7,5 eta 6 metroko gutxienekoa, hurrenez hurren, ere onartzen du. Anoetan, ordea, pistek hondoetan 41 metro, hegaletan 28 eta iskinetan 21 egotea dakar.
- Angulatura eta ikuspena:
  - Ufaren kalitatezko estadioen gidak (2013) dio: “Edozein estadio diseinatzerakoan eserleku guztiek zelai osoaren kalitatezko ikuspen izango dutela bermatu behar da. Horregatik, beharrezkoa da ikuspen anguluak optimizatzerakoan kontu handia izan behar da. Helburu nagusa ikusle eta jokoaren arteko distantzia ahalik eta txikiena izatea izan behar da, eta, hein berean, zelai osoarekiko ikuspen libre eta argia izatea. Bere txapelketa nagusi guztietan, UEFA eta FIFAk edukieraren kalkuluetatik at uzten dituzte zelaitik 190 metrora dauden eserleku guztiak edota ikuspen angulu kaxkarrak dituztenak. Hau da, ikuspen ona lortzeko eserleku bakoitzetik zelaia ondo ikustea, berau zelaitik ahalik eta gertuen egotea eta ikuspena baldintzatuko dion ezer ez egotea bermatu behar da”.
  - Anoetan, atletismo pistek hainbat eserlekutan ikuspen angulatura urria izatea dakarte. Ohikoa da lehen lerroetako ikusleak (batez ere hondoetan) pasabide edota goiko eserlekuetara joatea partidua zutik edo berea ez den eserlekutik ikusteko. Beheko eraztuean 10.152 ikusle sartzen dira (edukieraren %31a), zeinetatik hondoetan

4.752 daude (edukieraren %15a). Kasu hauetan, publizitatearen hesiak area txikiaren edota alboko eta hondoko marren ikuspena asko mugatzen du.

Zaletuek goiko harmaila eta lerroetan erosi ohi dituzte abonoak. 2014ko ekainean:

- Erdiko tribunetan, harmaila altuak abonatuena %92ko okupazioa izan zuen eta behekoetan, ordea, %70an geratu zen nahiz eta zelaitik gertuago egon eta abonuen prezioa berdina izan (datuen iturria: guk eginak klubak jakitera eman dituen azken datuetatik).
- Beheko eraztuneko tribunen kasu zehatzean, lerro altuenak ia %96an zeuden okupatuta, eta atletismoko pistengandik gertuen zeuden lehen lerroak ez ziren %46tik pasa. Lerro altuen (597) eta baxuenen (517 eta 545 bitarte) arteko prezio ezberdintasuna 52 eta 80 euro artekoa da. Honek argi uzten du Anoetako zaletuek nahiago dutela zelaitik urundu eta gehiago ordaindu ikuspen angulua hobea den bitartean. Gainerako estadio edo zelaietan alderantziz izan ohi da (datuen iturria: guk eginak klubaren sarrerak saltzeko webgunea aztertuta).
- Nabarmentzeko modukoa da ipar eta hego hondoetako beheko solairuan libre dauden 4.742 eserlekuetatik ezin dela zelaiko hondoetako marra ikusi. Ia 5000 eserleku hauek Anoetako edukieraren ia %15a dira. Eredu moduan, irudi bat:  
<https://twitter.com/gabimadrid79/status/531573318592520192>
- Tribunetan antzeko zerbait gertatzen da atletismoko pistetatik gertuen dauden eserlekuak aztertzen baldin baditugu. Estadio osoko beheko eraztuneko leku hauek Mundial edo Joko Olinpiko bateko 100 metroko final hipotetiko bateko eserleku onenak lirateke, baina futbol partida baterako, instalazioko erabilera nagusirako, ez. Publizitate hesiak, ekipoen aukiek, laugarren epaileak edo segurtasunekoak oztopo dira eserleku hauen ikuspenerako. Zentzu honetan, eta apunte gisa, Realak leku hauek erabiltzaileen beharren neurrira komertzializatu ezin izanagatik zenbat diru irabazteari utzio dion galdetzea interesgarria litzateke.

Eredu moduan, irudi bat:

<https://twitter.com/BUTTANO/status/19407746977735681>

## **2.1.2.Euria**

Nahiz eta planoaren gainean eserleku guztiak babespean dauden, errealitateak kontrakoa argi uzten du. Eredu moduan, irudi bat:

<https://twitter.com/Jurdan/status/426070642187071488/photo/1>

San Mamesen gertatu da, non ia 200 milioi inbertitu oseau -ikus Anoetan bere osotasunean inbertitutakoarekiko ezberdintasuna-, milaka zaletuk bere eserlekuaren kalitatearengatik protestatu duten eta jabeetako batzuk 10 milioiko inbertsioa egitea proposatu duten.

## **2.1.3.Denda**

Esperientziarekin loturiko beste faktore bat denda da. Futbol talde profesional gehienek bezala (Lehen Maila edo Bigarren B Maila), Realak denda du bertako bezala partidak jokatzeko erabiltzen dituen instalazioetan. Lehiakide askok ez bezala, mugimendu gehieneko unetan -orokorrean partida egunekin koinziditzen dutenak- denda ez da erosleen sarrera jasateko, eta hauek dendara sartzeko euren txandaren zain geratu behar dira kanpoan.

Aurkako kudeaketa daramate merchandising arloan puntakoak diren klubek, esaterako Manchester United Realeko zaletuek 2013ko urrian ikusi ahal izan zuten bezala. Anoetan ez bezala, inork ez du itxoian behar ez dendan sartzeko ez oradintzeko ere, 40 salmenta gune baitaude bezeroaren arretarako, zeinak beharraren arabera ireki eta ixten diren.



## 2.2.Hazkundera

	Edukiera	Txarteldegirako gordeak	Desgaituak	Benetako edukiera	Okupatuak	Libreak	Okupatuaren %	Prezioa
<b>GUNE MERKEA</b>	16332	542	26	15764	15559	205	98.70	240€ a 350€
Hondoak	10892	450	0	10442	10391	51	99.51	240€ a 264€
Kornerrak	5440	92	26	5322	5168	154	97.11	280€ a 350€
<b>GUNE GARESTIA</b>	15101	0	0	15101	12742	2359	84.38	517€ a 608€
Goiko tribuna	9615	0	0	9615	8873	742	92.28	517€ a 608€
Beheko tribuna	5486	0	0	5486	3869	1617	70.52	517€ a 597€
<b>PALKUAK</b>	776	0	0	776	776	0	100.00	(ezezaguna)

(Iturria: gug egin klubaren azken datu osoetatik abiatuta)

### 2.2.1.Gune merke eta gune garestia

Anoeta bitan bana dezagun: lehena, merkea, zeinak hondoak eta kornerrak osatuko luketen (10.900 bat eserleku eta beste 5.400 hurrenez hurren); eta, bigarrena, garestia, zeinak bi tribunetako 15.100 eserlekuak izango zituzkeen. Lehen arean, 240 eta 350 euro bitarteko abonuekin, 2014ko ekainean eserlekuen %1,3a soilik zegoen libre behin lehiatilara bideratu behar direnak kenduta. Soilik 205 eserleku zeuden libre, eta, ziurrenik, bata bestearengandik urrun eta lehen lerroetan (ikuspen txarragoa). Egoera honek lagun talde edo familiarrak eserleku hauek aprobeztatzea asko zailtzen du, baita norbanakoak aurrez bazkide diren lagun edo familiarren ondoan abonatu bezala alta ematea.

Honen ondorioz abonatu ia merkeenak 517 euro balio du (21 urte baino zaharragoentzat). Arazo bat gehiago gazteak abonatu egiteko, eta gizarte talde horretan daude etorkizunean kluba sostengatuko duten abonatu potentzial gehien, honek ekar ditzakeen belaunaldi hausturarekin eta beste bi ondorio garrantzitsurekin: egiturazko diru-sarreraren galera eta datozen belaunaldiei zaletausna ez transmititzea.

Historiaren lezio laburrak:

- Hondoetako okupazio datuak ez dira berriak: ia bere osotasunean beteak daude 1993an Anoeta inauguratu zenetik 29.000 ikusleko edukierarekin. 1998ko udaran obrak egin ziren beste 3.000 eserleku gehitzeko hondo bakoitzean solairuarte bat eraikiz. 1995-1996 denboraldian Realak 21.025 abonatu zeuzkan. Solairuartekoen eraikuntzaren ostean, 1998-1999 denboraldian, zenbateko hori 26.9993ra igo zen. Lehen Mailan egongo zen hurrengo hamalau denboraldietatik hamaikatan Realak 25.000 abonatu baino gehiago izango ditu.

1997-98 denboraldiak (solairuartekoen eraikuntzaren aurrekoan), edukierarekiko abonatuaren portzentaia %79,83koa zen. Estadioko %20,17a libre egonagatik, solairuarteetako 3.000 eserlekuak saldu ziren. Egun, abonatu portzentaia antzekoa da:

- 2013-14 denboraldia: %81,89.
- 2014-15 denboraldia: %78,17.
- 2012-13 denboraldiko neguan Realak hondoetako ia 600 eserleku hutsik utzi zituen kanpaina egin zuen, abonatuak kornertara mugituz. Leku huts horiek ez zuten denbpra gehiegi iraun eta 2014ko datuetan ikus daitekeen bezala eskari handiaren ondorioz segituan bete ziren.

## 2.2.2.Palkoak

Realak Ikerfeli 2003an enkargatu zion ikerketa batean, zeina aldizkari ofizialean publikatu zen, "palkoen okupazio indizea %100ekoa izan da eta da

1993tik, hasierako okupaziotik inolako rotaziorik gabe. Eta, uneren batean bajaren bat egon bada, Realari jakinarazi aurretik palkoko okupatzaileek bere ordezkoa bilatu izan dute. Palkuko eserlekuen jabe izateko eskaera zerrenda luzea dugu, zeinak egun dauden abonatu kopurua bikoiztea ahalbidetuko ligukeen, orokorrean enpresak eta inolako publizitate kudeaketarik egin gabe, zioen aldizkari ofizialak.

2014ko ekainean esan daiteke palkoetako 776 eserlekuak okupatuak daudela. Eserleku kantitate urriari hauen aniztasun eza gehitu behar zaie: Beste kasu batzuetan ordea:

- Espanyolen Cornellà-El Prat kanpoak 1.900 eserleku VIP ditu lau modalitatetan banatuta..
- San Mames Barriak 2.860 VIP eserleku ditu bi modalitatetan banatuta: palkoak eta premium eserlekuak. Kontzeptu honengatik Athleticek 8 milioiko sarrera aurreikusi du, Realak abonatu guztiengatik jasotzen dituen sarreren antzeko kopurua.
- Publiko hauen beharrak ase nahi izateak zerbitzuak berritzea dakar, tabernetatik hasi eta aparkatzeko lekuetaraino, baita abonatu mota honek eskatzen dituen bestelako erraztasunak ere.

### **2.2.3.Telebista-eskubideak**

Behin telebistako eskubideen banaketa berria ezagututa, egoera optimoan dagoen futbol zelaiak ikusgarritasun irizpideen arabera banatuko den diruaren %25a ezarriko du. Futbol Lipa Profesionalak erabaki horiek hartzeko kanpo enpresa bat aukeratuko du. Beraz, esan bezala, instalazioa hobetzeak futbol enpresaren fakturazioa igotzea ekarDonostia, Gipuzkoa eta Euskadin ekarpen fiskal handiagoa egingo luke.

### **2.2.4.Barneratzean mugak**

Egoera orokorra: Realak Lehen Mailako taldeen artean bere lurraldeko biztanleekiko abonatuaren sarpen-indize altuenetako bat du. Datu hau,

baliozkoa baina mugatua, Gipuzkoako biztanlerian oinarrituak ateratzen da, non Realaz gain SD Eibar (5.000 abonatu inguru) eta Real Unione (3.000 inguru) ere lehiatzen duten, eta, gainera, datu honek Iparralde bezalako inguruko lurraldeak alde batera uzten ditu.

Realak duena baino sarpen-indize altuagoko adibide europearra Borussia Moenchengladbach-ena da, zeinaren erreferentziako biztanleria 256.000koa da eta zelaira doan kopurua 50.400 ikuslekoa da.

Sare sozialetan, kuantitatiboki balio gutxiko baina kualitatiboki handikoa, Reala Gipuzkoa osoko erakundeen artean babes gehien lortzen duena da. Twitterren 365.000 jarraitzailea ditu eta Facebooken milioi bat baino gehiago. Honek hazkunderako dagoen aukeraren zirriborro bat ematen du, beti ere jarraitzaile horiek Anoetako bisitari izango balira.

## 3. Arrazoi komunitarioak

### 3.1.Hiriaren jarduera ekonomikoan eragina

#### 3.1.1.Donostian ikerketa

Futbolaren eraginaren inguruko azken ikerketa ezaguna 2007koa da, Donostiako Sustapen Sailak egin eta 2006-2007 denboraldikoa, azken bi jardunaldietan ia 800 errealzarei egindako inkesketkin. Bertan, ondorengo datuak biltzen dira:

- Asistentzia eta sarrera. 430.405 ikusle (22.652 Ligako 19 partidako bakoitzean); y 101.945 sarrera salduta (5.365 sarrera partidako).
- Hiriburuan bizi ez diren realzaleen %34,5ak gastronomiarekin loturiko jarduerak egin dituzte, %27ak hirian zehar bisita turistikoa egin du, %17a erosketak egitera joan da eta %12,7a hondartzara joan da. Inkesta egindako hamarretik hiru baino gutxiagok esan dute soilik partidara joan direla.
- Kanpoko zaletuen %56,5ak gastronomiarekin loturiko jarduerak egin dituzte, %45ak hirian zehar bisita turistikoa egin du, %3,5a erosketak egitera joan da eta %35,7a hondartzara joan da. Inkesta egindako %18ak esan du soilik partidara joan direla.
- Bertako zaletuaren batez besteko gastua partida egunean 17 eurokoa da estadioaren kanpoaldean; bisitariarena 64,76 eurokoa. Bertako zaletuak 6,1 milioi gastatu zituen hostalaritzan; 512.106 euro garraioetan; 358.474 hoteletan; 273.123 komertzio txikian; eta 59.746 euro aisialdi eta kulturetan. Bisitariak 139.795 errestaurazioan; 62.050 hostalaritzan, 25.185 komertzio txikian, 6.023 garraioetan eta 3.322 euro bestelako ekintza kulturaletan. Hirian egindako gastu totala 7,3 milioi eurokoa izan zen.
- Hirian egindako gastuen datu hauetatik abiatuta eta Eustaten input-output taulen arabera, partiden ondorioz sortutako eskariak

asetzeko tarteko ekoizpenen batura 54 eta 59,7 milioi euro tartean baloratu zen.

- Realak 2006-2007 denboraldiak egindako gastu zuzena: 38 milioi euro, zeinetatik 28,5 Donostia eta Gipuzkoan gastatu ziren.
- 2007ko urtarrila eta ekainaren arteko albisteen balorazio ekonomikoa (telebista estatal eta autonomikoetan 35 ordu baino gehiago, 840.000 inpaktu) 19,6 milioi eurokoa izan zen. Real Valladolid taldean izan zuen ordu eta erdiak (Bigarren mailan) semestre berberean 925.000 euroko balioa izan zuen.

### **3.1.2.Glasgow inpaktua**

2004 eta 2007an Grant Allan, Stewart Dunlop eta Kim Swales-ek (Glasgowko Strathclyde Unibertsitateko Ekonomia Zientzietako fakultatea) egindako The Economic Impact of Regular Season Sporting Competitions: The Glasgow Old Firm Football Spectators as Sports Tourists ikerketak dio bi klub eskoziar garrantzitsuenek, Glasgowko Celtic eta Glasgowko Rangersek, sortzen duten jardua turistikoa “Eskoziarentzat Edinburgoko Festibalak Eskoziarentzta sortzen duenarekiko alderagarria da eta Glasgowrentzat gastu kirol turistikoa 12 urtean behin Joko Olinpikoen ospakizunaren antzekoa” dela ondorioztatzen du.

### **3.1.3.Bestelako ikerketak**

Zaragoza, Almeria edo Murziako komertzio ganbarek, hiru adibide aipatzearen, azken hamarkadan euren taldeak Lehen Mailara igotzearen eragin ekonomikoaren inguruko ikerketak egin dituzte. Hiriarentzako igoerek duren eragin ekonomikoaren aurreikuspenak askotarikoak dira. Batzuk oso apalak dira (Valladoliden 5 milioiko eurokoa eta Murzian 10 milioi eurokoa), baina badira 2011-2012an Granadan (28,4 milioi euro) edo 2014-2014an Gironan (23 milioi euro) egindakoak ere. Erdibidekoak dira Almerian 2014an egindakoa (19.675.784 euro) edo Zaragozako ikerketa:

- Zaragoza, 2007-2008 denboraldia: 14.707 zaletu bertaratu ziren, klubeko 759 kide (jokalari, talde teknikoa eta zuzendaritzakoak); 592 kazetari, 76 epaile. Guztira 16.134 pertsona. Horrek dakarrena:
  - Hotelak. 12.476 gau-pasatze. Guztira 1.399.440 euroko diru sarrerak..
  - Errestaurazioa. Pertsonako batez besteko gastua 50 eurokoa izanda eta kontuan edukita hiriburukoak ez diren baina estadiora gerturatzen diren zaleak ere barnean daudela, ikerketak ondorioztatzen du 26.600 pertsonak hostalaritzan kontsumitzen dutela. Guztira 1,33 milioi euro. Kanpoko 15.375 pertsonak, bestetik, 768.750 euro gastatuko lituzkete..
  - Komertzioa eta bestelako gastuak: La Romaredara partida egunean gerturatzen diren aragoar eta kanpoko zalegoaren artean (41.975 pertsona) 2.144.906 euro gastatzen dituzte komertzioan, garraioan etab.
  - Eragin ekonomiko totala. Aipatutako 5,4 milioi eurori zeharkako eragina (2,3 milioi), mediatikoa (5,5 milioi) eta klubaren aurrekontutik udal kutxetara aportatzen dena (7,15 milioi) gehitu behar zaizkie. Guztira: 20.629.809 euro.

## **3.2.Urtarotzeari kontra egin**

Udako hilabetez haratago, hauek maiatzetik urrira doazenak bezala ulertuta, Realak hilabete hauekin bat ez datozen epeetan bisitari ugari sortzen ditu. Horrek guztiak sektorea desestazionalizatzen eta jasangarriagoa egiten laguntzen du. Berbera gertatzen da futbol zelaian egiten diren bestelako egitasmoekin, errugbiko europako partidak edo kontzertu jendetsuak esaterako, zeinak mantendu eta hobetu litezkeen edukiera handitzearekin.

## **3.3.Erakargarritasun turistikoa eta enpresariala**

Ez irizpide funtzionalekin bakarrik egindako estadioaren eraberritzeak instalazioa hiriko irudi ikoniko bihurtzea ekar lezake:

- Zaleek hainbat faktore hartzen dituzte kontuan bidaiatzeko orduan: hiriaren erakargarritasuna, bertako afizioaren tratua eta estadio barneko esperientzia. Anoetaren kasuan, kanpoko zaletuen gehiengia Beheko Ipar Tribunan jarri ohi dira, zeinaren eserlekuek ikusgarritasun kaxkarra duten.
- Futbola, espektakulu global bezala, eta espainiar Ligam munduko garrantzitsuenetako bezala, enpresa gipuzkoarrek euren bezeroei eskain diezaieketen alor erakargarria izan daiteke, VIP palkoen kasuan are gehiago. Zoritxarrez, une honetan, Anoetak ez du halako skaintzarik.



# I. Eranskina: Kontzeptu mapa

Dokumentu honetan jasotako kontzeptuak barneratu eta elkarren artean erlazionatzen dituen kontzeptu mapa ondorengo estakeran bidez ikus daitezke:

[realsocialismo.org/wp-content/uploads/2015/12/mapa-conceptual.pdf](https://realsocialismo.org/wp-content/uploads/2015/12/mapa-conceptual.pdf)